



2021-2022 ikasturtean, DROGAK ETA ESKOLA inkestaren edizio hau egin da, 1981-82 ikasturtetik Euskal Autonomia Erkidegoan, Donostian, lau urtean behin egiten ari diren inkesten barruan. Helburua da ezagutzea zein diren Bigarren Hezkuntzako ikasleen droga-kontsumoaren eta beste adikzio batzuen egoera eta joerak.

Ikerketa egitea Droga-mendekotasunen Deustuko Institutuari dagokio. Inkesta finantzatzea eta sustatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari dagokio.

Metodologia Drogen eta Adikzioen Espainiako Behatokiak (ESTUDES) eta Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiak (ESPAD) erabiltzen dutenaren antzekoa da; modu horretan, konparazioak biztanleria zabalagoekin egin daitezke.

## **Helburuak:**

DROGAK ETA ESKOLA inkestaren helburua da drogen kontsumoari eta beste adikzio batzuei buruzko informazioa biltzea. Ikerketa epidemiologiko honek ikuspegi orokorra ematen du, jakiteko zer kontsumo-ohitura eta jokabide dituzten helduarorako trantsizioan dauden nerabeek.

Helburu orokor horretatik abiatuta, honako helburu espezifiko hauek ezartzen dira:


- Jakitea zer kontsumo-prebalentzia dagoen droga psikoaktiboen eta beste adikzio batzuen artean.
- Ezagutzea zein diren kontsumitzaileen ezaugarri soziodemografiko garrantzitsuenak.
- Kontsumo-eredu garrantzitsu batzuk ezagutzea

Edizio honetan, DROGAK ETA ESKOLA X izenekoan, kontsumoez gain, arriskutsuak izan daitezkeen beste jokabide batzuk ere aztertu dira, hala nola diruarekin jokatzeko, IKTak erabiltzea, jokabide antisoziala eta eskola-jazarpena.


Beste informazio bat ere jaso da, zehazki kontsumoarekin eta beste jokabide arriskutsu batzuekin zerikusia duten aldagai batzuei buruzkoa: eskola-martxa, balioak, autoestimua, asertibitatea eta gizarteratzea.

# DROGAK ETA ESKOLA X- 2022

Landa-lana: 2021eko urriaren 1etik 2022ko apirilaren 1era



LAGINA



**88 ikastetxe publiko eta pribatutako  
6.188 ikasle**

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 4 mailak.
- Batxilergoko 1. eta 2. mailak
- Lanbide Heziketako Erdi-mailako Prestakuntza-zikloak
- Oinarrizko Lanbide Heziketa


TRESNA



**Galdetegi estandarizatua, anonimoa  
eta autoadministratua**

- Substantzia-kontsumoen prebalentziak (bizitzan zehar, azken urtean eta azken hilabeteen).
- Dirua jokatzea eta apustuak egitea
- IKTen erabilera
- Beste arrisku-jokabide batzuk

Kontsumoaren prebalentzia (%). Azken 12 hilabeteak



2022an, substantzia psikoaktibo guztien kontsumoak behera egin du, hipnolasaigarrien kontsumoak izan ezik

# DROGA-KONTSUMOA




Kontsumoaren prebalentzia sexuaren arabera (%).

Azken 12 hilabeteak


■ Gizona ■ Emakumea

Legez kanpoko droga guztien kontsumoa hedatuago dago mutilen artean nesken artean baino.



Legez saltzen diren drogekin (alkohola edo tabakoa) prebalentziak antzekoak dira; psikofarmakoekin, berriz, kontrakoa gertatzen da: neskek gehiago kontsumitzen dituzte.



# ALCOHOL-KONTSUMOA




Alkohol-kontsumoak behera egin du denbora-adierazle guztietan




Alkoholaren kontsumoa eta kontsumo-eredu arriskutsuak (intoxikazio etilikoak) areagotu egiten dira adinarekin, eta antzekoak dira nesken eta mutilen artean.

# TABAKO-KONTSUMOA




## Tabakoaren kontsumoa sexuaren arabera



Maiztasun handiagoko kategorietan, tabakoaren kontsumoa hedatuago dago gizonen artean emakumeen artean baino

Tabakoaren kontsumoak behera egin du aztertutako denbora-serieetan eta eguneroko kontsumo-kantitate guztietan




## Tabako-kontsumoaren prebalentzia

	Zigarreta konbentzionala (%)	Zigarreta elektronikoa (%)
0.- Ez dut inoiz erre	71,5	84,8
1.- Duela hilabete baino gehiago probatu nuen	13,8	13,4
2.- Zigarreta 1 baino gutxiago astean	2,9	0,9
3.- Zigarreta 1 baino gutxiago egunean	2,0	0,4
4.- 1-5 zigarreta egunean	4,7	0,1
5.- 6-10 zigarreta egunean	2,9	0,1
6.- 11-20 zigarreta egunean	1,9	0,0
7.- 20 zigarreta baino gehiago egunean	0,4	0,2


# KANABIS-KONTSUMOA



Urteekin, kanabis-kontsumoak gora egiten du




Kanabis-kontsumoak behera egin du denboradierazle guztietan



Kanabisaren kontsumo problematikoak (CAST puntuazioa  $\geq 4$ )

■ Kontsumo problematikoak




CAST-en puntuazioen arabera, kontsumitzaileen % 18 kontsumitzaile problematikoak dira (ikasle guztien % 3,1)




# BESTE SUBSTANTZIA BATZUEN KONTSUMOA



## Psikofarmakoekoen kontsumoaren bilakaera (errezetarekin)




## Psikofarmakoekoen kontsumoaren bilakaera (errezeta gabe)




Kontsumoak behera egin du aztertutako denboraserieetan eta kontsumo-maiztasun guztietan (bizitzan zehar, azken urtean eta azken hilabeteetan), psikofarmakoekoen kontsumoan izan ezik


## Anfetaminen kontsumoaren bilakaera 2006 - 2022



## Kokainaren kontsumoaren bilakaera 2006-2022




## Estasiaren kontsumoaren bilakaera 2006 - 2022



# DIRUA JOKATZEA ETA APUSTUAK EGITEA


## Dirua jokatu du azken 12 hilabeteetan



- Inkesta egin duten ikasleen % 27,7k dirua jokatu du azken 12 hilabeteetan.
- Azken urtean, mutilen joko-prebalentzia % 36,4 handiagoa da neskena baino (20,2).

# DIRUA JOKATZEA ETA APUSTUAK EGITEA

Dirua jokatu du azken 12 hilabeteetan




- Ikasle gehienek ez dute dirua jokatzen den jarduerarik egiten
- Diru-joko eta apustuen jarduerak kategoría hauetan egiten dira nagusiki: kirol-apustuak eta makina txanponjaleak, eta neurri txikiagoan, karta-jokoak eta online jokoak.

# JOKO-PRAKTIKAK: portaera problematikoak

## Portaera problematikoaren aukera

■ Ez jokalaria edo arazorik ez   ■ Arriskuan dagoen jokalaria   ■ Jokalari problematikoa

SOGS-RA\*-ren puntuazioen arabera, jokalarien % 4,3 arriskuan dago, eta % 5,7 jokalari problematikoak dira.



### JOKO PROBLEMATIKOEN PREBALENTZIAREN KONPARATIBA


Diruarekin jokatu du azken 12 hilabeteetan	Jokalari problematikoa
DROGAK eta ESKOLA X (Azpi-lagina, Estudes)	% 5,2
ESTUDES	% 3,4
DROGAK eta ESKOLA X (Azpi-lagina, Estudes)	% 5,1
ESPAD	% 5

ESTUDESek erregistratutako balioekin alderatuta (2021), jokalari problematikoaren prebalentzia handiagoa da, eta Europar Batasuneko joko-prebalentziarekin alderatuta ere bai (2019)

\* South Oaks-en joko-galdekta-Nerabeentzako bertsio berrikusia (SOGS-RA)

# Teknologia berriak dibertsio eta aisialdirako erabiltzea

## Lanegunetan jarduera horietan ematen dituen orduak




- Mugikorra (berehalako mezularitza, deiak eta Internet) eta sare sozialak dira ikasleek dibertsiorako eta aisialdirako erabiltzen duten teknologia nagusia.
- Teknologia berrien erabilerari dagokionez, ikasleen erdiak baino gehiagok gehiegi edo modu intentsiboan erabiltzen dituzte mugikorra era sare sozialak.

# Internet eta teknologia berrien erabilera problematikoak

## Interneten eta mugikorraren erabilera problematikoak

Interneten eta mugikorraren erabilera problematikoari buruzko galdetegiaren puntuazioen arabera (Carbonell et al 2012)\* ikasleen % 18,8k aipatzen du tarteka arazoak dituztela, eta % 4,3k maiz dituztela.

■ Arazorik ez ■ Arazoak noizbehinka ■ Arazoak maiz



### KONPARATIBA BAT TEKNOLOGIA BERRIEN ERABILERA PROBLEMATIKOAREN PREBALENTZIARI BURUZ

Azken 12 hilabeteetan	ESTUDES 2021	ESPAD, 2019
Internet modu konpultsiboan erabiltzeko arriskua (CIUS puntuazioa $\geq 28$ )	% 23,5	----
Bideojokoek nahasmendua sortzeko arriskua	% 7,1	----
Pertzepzio pertsonala: sare sozialak erabiltzeak arazoak sortzeko arriskua	----	% 46
Pertzepzio pertsonala: bideojokoak erabiltzeak arazoak sortzeko arriskua.		% 21

\* Galdetegia: Internet eta mugikorraren erabilera problematikoak Espainiako nerabe eta gazteen artean.

# ONDORIOAK

## SUBSTANTZIEN KONTSUMOA

- Azken 12 hilabete hauetan ikasleek gehien kontsumitu dituzten substantziak: lehenik, alkohola (%54,6), eta, bigarrenik, tabakoa (%29,5). Ondoren, kanabisa (% 17), eta errezetadun psikofarmakoak (%7).
- Gainerako substantziek prebalentzia txikiagoa dute. Inkestatuen % 2,2k onartzen du kokaina kontsumitu duela azken 12 hilabeteetan. Denbora-adierazle horretan bertan: estasia % 2,2k kontsumitu du; anfetaminak % 1,8k; inhalagarriak % 1,4k; eta aztertutako gainerako substantzia psikoaktiboak % 1etik behera daude.
- Edari energetikoak (azken hamabi hilabeteetan) ikasleen % 37,5ek kontsumitzen ditu, eta alkoholarekin batera nahastuta kontsumitzeak % 20,6ko prebalentzia dauka.
- Legez kanpoko droga guztien kontsumoa hedatuago dago mutilen artean nesken artean baino. Legez saltzen diren drogekin (alkohola edo tabakoa) prebalentziak antzekoak dira; psikofarmakoekin, berriz, kontrakoa gertatzen da: neskek gehiago kontsumitzen dituzte.
- Kontsumoa adinarekin oso lotuta dago: adinean gora egin ahala, kontsumoak ere gora egiten du. Legezko substantzien eta kanabisaren kontsumoak adin goiztiarretan hasten dira esanguratsuak izaten; droga minoritarioen kontsumoa, berriz, 18 urte inguruan hartzen dute nolabaiteko garrantzia.
- 2022an, substantzia psikoaktibo guztien kontsumoak behera egin du, hipnolasaigarrien kontsumoak izan ezik

# ONDORIOAK

## DIRUA JOKATZEA ETA APUSTUAK EGITEA

- Lau ikasletik batek jokatu du modalitateren batean. 2017arekin alderatuta, 2022an jokoaren prebalentzia murriztu egin da, COVID-19aren pandemiaren kontrolarekin lotutako murrizketa sozialen ondorioz.
- Alde handia dago sexuaren arabera: handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (% 34,6 eta % 20,20, hurrenez hurren), eta adinean gora egin ahala prebalentzia ere handitu egiten da.
- Azken urteko joko- eta apustu-praktika zabalduenak kirol-apustu eta makina txanponjaleekin lotuta daude.
- Ikasleen % 4,3k arrisku-egoeran jokatzeko du, eta ikasle jokalaria horien % 5,7 jokalaria problematikoak izan daitezke.

## IKT-EN ERABILERA PROBLEMATIKOA

- Mugikorra (berehalako mezularitza, deiak eta Internet) da ikasleek dibertsiorako eta aisialdirako erabiltzen duten teknologia nagusia, baina erabilera hori jaisten ari da sare sozialen eta online jokoaren mesedetan.
- Teknologia berri horien erabilerari dagokionez, badirudi garrantzia handiagoa dutela konexioak, sareek eta kontaktuek jokoek baino.
- Internet eta mugikorraren erabilerarekin izan ditzaketan arazoei dagokionez, ikasleen % 18,8k adierazi du tarteka izaten dituztela arazoak, eta % 4,3k, berriz, maiz.



Droga-mendekotasunen Deustoko Institutua  
2022

 **Deusto**  
Instituto Deusto  
de Drogodependencias  
Universidad de Deusto

